

## **ESKOLAREN KUDEAKETARAKO ORGANOAK (EKO)**

Zurriola Musika eta Dantza Eskolaren antolaketa talde-lanean eta erantzukizun partekatuan oinarritzen da. Eskolako kudeaketa-organismoek, irakasleek eta gurasoek osatzen dute hezkuntza-komunitatea, eta guztiek dute parte-hartze aktiboa eskolaren eguneroko funtzionamenduan zein norabide pedagogikoaren erabakietan.

Zuzendaritza-taldea arduratzen da ikastetxearen koordinazio orokorraz, antolaketa estrategikoaz eta eguneroko jardueren kudeaketaz. Irakasle taldea, hezkuntza-eskaintza garatzeaz gain, eskola giroaren zaintzan eta ikasleen jarraipenean inplikatzeko da aktiboki. Gurasoek, aldiz, beren ekarpena egiten dute eskolako organoetan parte hartuz (hala nola, batzordeetan edo bilera orokorretan), eta hezkuntza-prozesuarekiko konfiantzazko eta hurbileko harremana sustatzen dute.

Antolaketa honek gardentasuna, elkarlana eta erabaki partekatuak bultzatzen ditu, betiere eskolaren helburu pedagogikoekin eta komunitatearen ongizatearekin bat etorritik.

### **Zuzendaritza Batzordea**

Zurriola Musika eta Dantza Eskolaren Zuzendaritza Batzordea elkartearen jarduna koordinatzeko eta eskolaren funtzionamendu orokorra gainbegiratzeko ardura duen organoa da.

Batzorde honek planifikazio estrategikoa, jardueren jarraipena, eta erabaki nagusien hartzea koordinatzen du. Gainera, eskola-komunitateko gainerako kideekin harreman etengabea dihardu, gardentasuna, parte-hartzea eta lankidetzaren bermatzeko.

Honako kideek osatzen dute:

- Lehendakaria
- Idazkaria
- Diruzaina
- Bi bokal
- Musika eskolako koordinatzailea

Administrazio-lanak Zurriola Ikastolako administrariaren bidez kudeatuko dira, honako hauek barne: izen-emateak, nominak, ordainketak, kontsultak eta bestelako eguneroko izapide administratiboak.

### **Irakaskuntza koordinatzeko organoak**

Irakaskuntza-prozesuaren antolaketa eta jarraipena bermatzeko, Zurriola Musika eta Dantza Eskolak irakaskuntza koordinatzeko hainbat organo ditu. Haien helburua da pedagogia-irizpideak adostea, curriculumak garatzea, eta ikasleen beharretara egokitutako praktika hezitzaileak koordinatzea.

Hauek dira organo nagusiak:

- Musika eta Dantza Eskolako Koordinatzailea: eskolaren eguneroko jardun pedagogikoa eta ikasturteko plangintza orokorra koordinatzen ditu. Aldi berean, Irakaskuntza Koordinatzailearen eginkizunak ere betetzen ditu, eta bere izendapenak Zurriola Ikastolaren onarpena jaso behar du.
- Irakasleen Taldea: diziplina bakoitzeko (musika, dantza, musika-tresnak, informatika...) irakasleek osatzen dute, eta hezkuntza-eskaintzaren garapenean parte hartzen dute.
- Tutoretzak: ikasleen jarraipen pedagogikoa eta familiarekiko harremana koordinatzen dute, orientabide eta gomendioak eskainiz.

Organook elkarlanean dihardute, helburu komun gisa kalitatezko irakaskuntza eta ikasleen garapen osoa izanik.